# Xedapen Orokorrak

## JAURLARITZAREN LEHENDAKARITZA

### Zk-7419

8/2002 LEGEA, abenduaren 27koa, Euskal Autonomia Erkidegoko 2003. urteko Aurrekontu Orokorrak onartzen dituena.

**Legea ale gehigarri bereizian argitaratzen da.**

## HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA ETXEBIZITZA ETA GIZARTE GAIETAKO SAILA JUSTIZIA, LAN ETA GIZARTE SEGURANTZA SAILA NEKAZARITZA ETA ARRANTZA SAILA

### Zk-7420

297/2002 DEKRETUA, abenduaren 17koa, Euskal Autonomia Erkidegoko zero urtetik hiru urtera bitarteko haurren Haur Eskolak 2002-2003 eta 2003-2004 ikasturteetan arautzen dituena.

2001eko uztailean aurkeztu zen Seme-Alabak dituzten Familiei Laguntzeko Erakunde arteko Plana, eta bere helburu nagusia zen «familiek nahi duten seme-alaba guztiak eduki ahal izateko oztopo ekonomikoak eta gizarte- eta lan-esparruko oztopoak gainditzea». Planaren helburu nagusia da familia-bizitzaren eta laneko bizitzaren arteko elkar ulertzea lortzea, eta zentzu horretan, familiei laguntzeko hainbat neurri aurreikusi dira, hala nola, familiak bizi duen egoeraren arabera hiru urte baino gutxiagoko haurren hezkuntza-arreta eta familiek dituzten lan-aukerak eta familiaren etorkizuna bateragarri egitea ahalbidetuko duten ordutegi malguak sustatzea.

Jaio eta bizitzako lehenengo urteetan haurrei eskaintzen zaien heziketa erabakigarria izango da haurrak gizabanako gisa izango duen garapenean. Familiari dagokio, lehenik eta behin, haurra heztea, familia baita haurra gizarteratzen lagunduko duen eragile nagusia, izan ere, familiaren eraginaren bitartez sendotzen eta azpi-

# Disposiciones Generales

## PRESIDENCIA DEL GOBIERNO

### N°-7419

LEY 8/2002, de 27 de diciembre, por la que se aprueban los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma de Euskadi para el ejercicio 2003.

**La Ley se publica en suplemento aparte.**

## DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN, UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN DEPARTAMENTO DE VIVIENDA Y ASUNTOS SOCIALES DEPARTAMENTO DE JUSTICIA, EMPLEO Y SEGURIDAD SOCIAL DEPARTAMENTO DE AGRICULTURA Y PESCA

### N°-7420

DECRETO 297/2002, de 17 de diciembre, por el que se regulan las Escuelas Infantiles para niños y niñas de cero a tres años en la Comunidad Autónoma del País Vasco durante los cursos 2002-2003 y 2003-2004.

El Plan Interinstitucional de Apoyo a las Familias con Hijos e Hijas presentado en Julio del 2001 planteaba como objetivo general «remover los obstáculos de orden económico y socio-laboral para que las familias tengan los hijos/as que libremente decidan». Este Plan, una de cuyas finalidades es lograr la conciliación entre la vida familiar y la vida laboral, prevé una serie de medidas de apoyo a las familias entre las que se incluyen las destinadas a la atención educativa a los menores de tres años de edad teniendo en cuenta las necesidades que se derivan de la situación familiar concreta y favoreciendo horarios flexibles que permitan a las familias conciliar sus expectativas laborales y familiares.

La educación que reciben los niños y niñas en sus primeros años de vida es un factor decisivo para su posterior desarrollo integral como personas. A la familia corresponde en primer lugar la responsabilidad educativa como agente primario de socialización ya que es a través de su influencia como se consolidan los valores